



GOBERNANTZA PUBLIKO ETA
AUTOGOBERNUA SAILA
Araubide Juridikoaren
Sailburuordetza
*Lege Garapen eta Arau Kontrolerako
Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA
PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO
Viceconsejería de Régimen Jurídico
*Dirección de Desarrollo Legislativo y
Control Normativo*

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN, ARABAKO FORU
ALDUNDIAREN, BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ETA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN
ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA, EUSKARALDIA EKIMENA GAUZATZEKO, 2021-2024
EPEALDIARAKO LEGEZKOTASUN TXOSTENA

116/2021 LGAKZ - LT

I. AURREKARIAK

Kultura eta Hizkuntza-Politika Sailak eskaera bidali dio Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzari, 2021eko abuztuaren 18ko datarekin, erreferentziatzko Hitzarmen proiektuari buruzko nahitaezko LEGEZKOTASUN TXOSTENA egin dezan, eskaerak hurrengo dokumentazioa eranstean duelarik:

- Bi Hitzarmen Zirriborroa.
- Kultura eta Hizkuntza Politikako zuzendariak jaulkitako memoria.
- Departamentuko txosten juridikoa.
- Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak Gobernu Kontseiluari zuzendutako akordio proposamena.
- Kultura eta Hizkuntza Politikako zuzendariak jaulkitako memoria osagarria.

Txosten hau oinarritzen da Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioeko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen irailaren 6ko Lehendakariaren 18/2020 Dekretuaren 7.1.i) atalean, eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen 8/2021 Dekretuaren 14.1.a) eta 15.1.a) artikuluetan.

Era berean, posible da seinalatzea, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzekeo ekainaren 2ko 7/2016 Legearen 5.1.b artikulua ezartzen duenaren arabera, Eusko Jaurlaritzaren

Zerbitzu Juridiko Nagusiari dagokiola egin beharreko txosten juridikoa egitea, Eusko Jaurlaritzak sinatzen dituen akordio- edo hitzarmen-proiektuak, erregelamenduz zehaztutako kasuetan.

Horren erregelamenduzko garapena, izatez, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren 144/2017 Dekretuaren bidez egin zen, apirilaren 25ekoa, eta honen 13 artikuluan legezkotasun-txostenaren nahitaezkotasuna arautzen du, bai eta txostena eskatzen duen sailak bere txostena eman behar duela eskaerarekin espediente osoa bidali behar baitu.

II. IZAPIDETZE ETA ESPEDIENTE ADMINISTRATIBOARI BURUZ

Legezktasun txostena eman aurretik, espedientean bildutako dokumentazioari buruzko iritzia eman behar da, aipatutako 144/2017 Dekretuaren 13.3 artikulua araberak, zeinak honela dio:

3.- Legezktasun-txostena nahitaezko duten prozeduretan, txosten hori eskatu aurretik, gainerako irizpenak eta txostenak lortu behar dira, Kontrol Ekonomikoko Bulegoarena izan ezik. Ekimenaren espediente osoa bidali behar da eskaerarekin batera; espedientea, funtsean, puntu hauek jasotzen dituen laburpen-memoria bat izango da:

- a) Txostenaren xede izan den ekimenaren behin betiko testua, sailaren txosten juridikoarekin batera.*
- b) Arau- eta jurisprudentzia-aurrekariak, ekimenaren sustatzaileak aztertutakoak edo kontuan hartutakoak.*
- c) Legezko xedapenek nahitaezkotzat hartutako txostenak, kide anitzeko organoek, interes orokorra ordezkatzeko eta defendatzeko duten erakundeek edo beste administrazio publiko batzuek eginak.*
- d) Egindako kontsultak eta gainerako datu interesgarriak, txostenaren xede den testua egiteko prozesuaren berri izateko.*

Horrekin bat, Memoria justifikatiboa eman eman da (bai hasierakoa zein gainerako osagarri bat) eta txosten juridikoa, hitzarmenaren bi zirriborroekin batera. Hala ere, hitzarmenaren behin betiko testua izan arte, ezingo genuke agindutakoa betetzat eduki.

Kontuan hartuta bigarren justifikazio-memoriarekin batera erantsi den testuak sailaren txosten juridikoak egindako ohartarazpenak jasotzen dituela, uste dugu bigarren zirriborro hori, behin-behinekotzat jo bada ere, behin betikoa dela. Hala izan ezean, legezkotasun-txosten honetan egindako gogoetak ere behin-behinekoak izango lirateke.

III. LEGEZKOTASUNA

1. Xedea

Aztertutako zirriborroaren aurrekariak behar bezala erakusten dute hiru partaide sinatzaileen artean jardun-eremu bateratu bat ezartzeko beharra arautzen duen azken xedea.

Eusko Jaurlaritzak eta Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia lurralde historietako foru aldundiek Euskaraldia ekimena diruz lagundu dute hasieraz geroztik, lehentasun handieneko proiektutzat hartu baitute.

Orain, berriz, Euskaraldia ekimenaren kudeaketan beste urrats bat gehiago eman nahi dute lau herri erakundeek. Horrela, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak eta EAEko hiru foru aldundiek Euskaraldia ekimena gauzatzeko lankidetzaz hitzarmen bat bideratu nahi dute. Hitzarmenaren xedea da lau herri erakundeen artean EAEko eremuan Euskaraldia ekimena ziurtatzeko eta alde desberdinak koordinatzeko oinarriak finkatzea.

2. Eskumen-eremua

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren eremu funtzionalari dagokionez, irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 14.1 artikulua araberak, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari dagozkio, besteak beste, arte- eta kultura-jarduerak eta horien sustapena eta zabalkundea.

Era berean, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 73/2021 Dekretuaren 15.2.d) artikulua adierazten du Euskara Sustatzeko Zuzendaritzaren egiteko izango direla hizkuntza bizikidetzan oinarritzen den gizarte

aktibazioa indartzeko ekimenak bultzatzea eta, bereziki, Euskaraldia-ren sustapen eta koordinazio lanak egitea.

Euskadiko Autonomia-Erkidegoaren Administrazioaren eta beste Administrazio Publiko baten (kasu honetan hiru Foru-Aldundien) artean adostutako hitzarmen proposamena den neurrian, Gobernu Kontseiluari dagokio berau harpidetzeko baimena ematea. Era berean, Legebiltzarrarekiko harremanetarako organoaren bitartez Legebiltzarrari komunikatu behar zaio ere bai, Lurralde Historiko batekiko hitzarmena denez gero. Horrela dator beren beregi aurreikusita lehen aipatutako Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 55, 57 eta 59. Artikuluetan.

EAEko Administrazio Orokorrari dagokionez, Autonomia-erkidegoaren izenean, lehendakaria izango da hitzarmenekiko adostasuna adierazi eta hitzarmenak sinatuko dituen, Eusko Jaurlaritzak ahalmen hori beste agintaritzari bati ematen ez dion bitartean (144/2017 Dekretuaren 62. artikulua). Hala ere, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak Gobernu Kontseiluari zuzendutako akordio proposamena erantsi denez, egiaztatu da Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari baimena emango zaiola hitzarmena sinatzeko.

3. Izaera juridikoa eta edukia

Partaide sinatzaileen arteko lankidetzaren oinarrien edukia lankidetzaren hitzarmen izenarekin aurkezten da.

Gure ordenamendu juridikoan, hitzarmenak Sektore Publikoaren Araubide Juridikoa legeztatzen duen urriaren 1eko 40/2015 legean arautu dira, hain zuzen ere, atariko tituluaren 47.etik 53.era bitarteko artikuluetan.

Hitzarmenen ezaugarri nagusiak, lege-xedapen honetan aurreikusitakoaren ondorioz, funtsean bat datozen, informatutako testuaren edukiarekin eta egiturarekin. Alde horretatik, egiaztatu dugu hitzarmenaren xede den gaia bat datorrela 47.1 artikulua aurreikusitako definizioarekin, bai alderdi postiboan – Administrazio publikoek hartutako ondorio juridikoak dituen akordioa-, bai alderdi negatiboan –ez da jarduteko protokolo orokor bat soilik, eta ez du kontratuen berezko prestaziorik-.

Hitzarmenaren edukiari dagokionez, eta esandakoak ez errepikatzeko, honi buruz txosten juridikoan puntu honeta emandako legezketasun balorazioekin bat egiten dugu. Azpimarratu behar da aurkeztutako bigarren zirriborroak, behin betikotzat jo duguna, bere egin dituela sailaren txosten juridikoan egindako iruzkinak.

Administrazio honentzat sortu daitezkeen izaera ekonomikoko eginbeharrei dagokionez, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren beharrezko aurretizko txostena gogoratu behar da.

IV. ONDORIOA

Legezketasun txostena aldekoa ematen dugu.

Hau da ematen dudana txostena, eta zuzenbidean hobeto oinarritutako beste edozein iritziren mende jartzen dudalarik.